



Udaberriren urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi

TOLOSA ▶

Herrialde ezberdineko emakumeen topaleku

Ereite elkartearen ekimena ▶ 4

TOLOSA ▶ 50 urte betetzen ditu taldeak, eta egitarau oparoa antolatu dute «taldea berritzeko»

EGITARAU ▶ Etzi bertso afaria izango da, eta Benito Lertxundiren kontzertua hilaren 20an ▶ 3

Zehaztu dute ordutegia obrak amaitu dituzten Kale Nagusirako

VILLABONA ▶ Zamalanak eta bizilagunek ibilgaluak kalera sartzea «ahalik eta gehien mugatzea» lortu nahi du Udalak ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Berazubi auzoko jaiak bihar arratsaldean hasiko dira

Urtebeteko atsedenaldea eta gero, festa giroa nagusituko da ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Atxiloketen aurrean mobilizatzeko deia egin dute

Elkarretaratzeak egingo dituzte goizean nahiz arratsaldean hainbat herritan ▶ 7

I. GARCIA



LEABURU-TXARAMA ▶

Tentsio uneak bizi dituzte egin duten azken udal batzordean

EAE-ANVren jarraitzaileak udaletxe aurrean bildu ziren protesta egiteko ▶ 6



“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308 berria



TOLOSA ▶ ASIA

Urtebeteko atsedena eta gero...

Bihar hasi eta igandean amaituko dira Tolosako Berazubi auzoko festak

ESTI EZEIZA

Joan den urteko geldialdiaren ondoren, berriro ospatuko dira aurten Tolosako Berazubi auzoko jaiak. Aurtengoan, Berazubi inguruan ibiltzen den talde batek antolatu ditu. Ekitaldiak bihar hasiko dira eta igandean amaitu. Bihar 18:00etan ekingo diete jaiak, txupinazioarekin eta petardoenekin.

Lau egunetan zehar, izango da zer jan eta edanik Berazubi auzoan. Izan ere, zahagiardoa, paella-jana, auzo-poteoa, adinekoentzako luntxa... presatatu dituzte antolatzaileek. Bestalde, Tolosako taldeak ezagutzera emanaz, bertako sei musika talde entzun ahal izango dira ostegun eta ostiralean.

Horien artean izango dira: Homo Demens, Funtastic World, Desordutane eta Gargantas Desgarradas.

Antolatzaileen esanetan, beraien asmoa «Berazubiko auzotar guztiak, auzokide zein herritar guztiak (txikiak zein helduek), festez gozatzeko aukera edukitzea da». Bestalde, beraiantzak, festak aurrera eramatea, lana ez, gustokoa izan dela diote, «ondo pasatzeko aukera izango baitugu auzoan bertan eta geure artean egindakoa denontzat izango baita». Egitaraua, auzoko, herriko eta inguruko hainbat pertsona eta talde ezberdinen (musika, antzerki, elkarte...) laguntzarekin osatu dute. Bertan ume, gazte eta ez-hain gazteentzat saioak egotea da dute helburu.



Berazubiko jaietan, auzo bazkaria egingo dute aurten ere; hau hilaren 12an izango da. N. LIZARTZA

EGITARAUA ▶

URRIAK 11, BIHAR

18:00. Jaien hasiera petardoekin eta txupinazioa. Buruhaundiak auzoan zehar.

19:30. Auzo poteoa herriko trikitilarekin. Ondoren, perkusioa eta samba Mulamboren eskutik.

21:00. Zahagiardoa. Afari librea sagardo kupelarekin.

22:30. Bakarrizketa saioa Gorka Larizen eskutik, *El locatorio: cuanto mas loco mejor*.

Ondoren. Herriko taldeen kontzertua: Homo Demens, Funtastic World eta Desordutan. Musika elektronikoa izango da txosnan, itxi arte.

URRIAK 12, ETZI

09:00. Meza Sakramentinoetan. Goizean herriko dultzaineroak auzoan zehar ibiliko dira kaleak alaitzen.

12:00. Auzo-toka. Gizonezkoen arteko txapelketa. Goizean zehar paella prestatzea, ondoren txapelketa.

14:00. Auzo-bazkaria, paella jana.

17:00. Umeentzako festa.

19:00. Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa izango da.

22:30. Herriko taldeen kontzertua: Gargantas Desgarradas, The Royal Service eta Angelays.

Ondoren, musika izango da txosnan, itxi arte.

URRIAK 13, LARUNBATA

14:00. Mus txapelketa.

17:00. 3x3 futbito txapelketa gazteentzat.

19:00. Tortilla lehiaketa (tipula, patata eta arrautza).

00:00. Disko festa plazan.

04:00. Sorpresa txosnan, itxi arte.

06:00. Txokolatada plazan.

URRIAK 14, IGANDEA

Goizean. Herriko dultzaineroak auzoan zehar.

12:00. Auzo-toka. Emakumeen txapelketa.

14:00. Auzo bazkaria, babarrun jana.

17:00. Zezenak eta poniak zezen plazan.

20:00. Luntxa adinekoentzat.

PILOTA ▶

«Lehia gogorra izango dela nabari da», lehen jardunaldien ondoren

Pasa den larunbatean hasi zen Beotibar frontoian, II. Emakumea Pilotari Txapelketa

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean jarri zen martxan II. Emakumea Pilotari Txapelketa. Lehendabiziko saioak Tolosako Beotibar pilo-

talekuan jokatu ziren. Saioa 15:30ean hasi zen. Bigarren mailako hiru neurketak jokatu ziren lehendabizi, eta lehenengo mailakoak ondoren.

Partida ia guztiak gogor eta orekatuak izan ziren, aurten bikoteen artean dagoen parekotasunaren adierazle. Izan ere, bi maila osatzeak mesede egin die, bai txapelketari eta baita bertan hartzen ari diren pilotari ere. Ia neurketa gehienak 45 minutu inguruko iraupena



Larunbateko jardunaldiko mometuetaiko bat. NAIARA GARCIA

EMAITZAK ▶

1. MAILA

▶ Manzidor-Argain	30
Pierola-Montes	25
▶ Evaristi-Erasti	21
Urkizu-Unanua	30
▶ Fernandez-Arozena	28
Redondo-Mendizabal	30

2. MAILA

▶ M. Zabala-N. Zabala	30
Arrondo-Urbieta	25
▶ Bañales-Gurrubxaga	30
Urbistondo-Ukas	23
▶ Jauregi-Goenaga	30
Lujanbio-Tijero	13

izan zuten, eta izan zen ordubetik oso gertu ibili zenik ere. Hala, antolatzaileen esanetan, «Txapelketa martxan jarri baino egin ez den arren, aurten partidak lehiatuak eta gogorrak izango direla zurrira da».

Larunbatean Beotibarrera bertaratuak ikusleen kopurua handia izan zen. Hala ere, gutxi izan ziren jardunaldiak iraun zituen bost ordu eta erdiak jasan zituztenak. Hurrengo jardunaldiak, hau da, bigarrenak, Altzan jokatuko dira hilaren 20an, 15:30etik aurrera.

Rihodemio Pausoka
Martin J. Iraola 2 - behea
TOLOSA • 943 67 24 48

• Ingelesa
First Certificate, advanced, Proficiency bezalako azterketa ofizialeterako prestakuntza.

• Frantsesa, arabiera, italiara
Maila guztiak • Gaiturko irakasleak

• Erreformatu eskolak
Zientziak eta letrak *adin guztiak
Eguneroko jarraipena *talde murriztuak

Tolosan, Berrobin eta Berastegin ematen ditugu eskolak.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Naiarros etorb. 11 behea - TOLOSA
Mug.: 678 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

KULTURA ▶



San Joan eguneko prozesioa. HITZA

Udaberri berria

Tolosako Udaberri dantza taldeak berrogeita hamar urte bete ditu aurten eta taldea berrindartzeko asmoarekin ekintzaz beteriko urtea antolatu dute

UR ALGERO

Aurten berrogeita hamar urte bete dira Xalbador Garmendia eta Felix Galdona apaizen eskutik Udaberri dantza taldea sortu zela. Beraien asmoa ordurako berpizten ari zen euskal giroa bultzatzea zen. Izena ere etortzeaz zeuden garai berriak gogoan zituztela aukeratu zuten: Udaberri.

Une horretatik gaur egun arte gauza ugari pasa dira Udaberriren inguruan eta bilakaera horren ondorioa da gaur egungo Udaberri.

Denbora asko pasa aurretik bi apaizek Tolosatik alde egin zuten eta taldeko txistulariek hartu zuten taldearen ardura, modu honetan dantza taldea elizatik aldentu zen. Beranduago haurren taldea hamar urte osatu zen, eta 1966an hasi zuten bere ibilera. Ikastaro hauetan berrehun ikasle izatera iritsi ziren.

Gaur egun, Udaberriren saiorik garrantzitsuenetako bat Bordondantza den arren hasieran honek ez zuen arrakasta handirik izan, dantza horretan erabiltzen zituzten arropak tradizionalak ez omen zirelako. Urteak behar izan zituzten dantza erabat onartzeko.

Urte horretatik aurrera herri ezberdinetako dantzak egiten

hasi zen taldea, beti ere tradiziozko euskal dantzaren barruan, eta berrikuntza bezala beste musika tresnak erabiltzen hasi ziren beren emanaldietan.

Garai txarrak, Udaberriren negua alegia, 1976ean etorri ziren, urte honetan haurren taldea desagertu egin zen eta helduen taldeko kide ugari taldea utzi zuten. Ondorioz, taldea desagertzekotan egon zen. San Joan jailetako bordondantza eta aurraskua izan ziren urte hartan eskainitako saio bakarrak.

Ikerketa izan zen krisialdi honi ateraldia emateko bidea, Udaberri geratzen ziren dantzariak Harkaitz dantza taldetik ateratako beste dantzari batzuekin batera herri ezberdinetako dantzak berreskuratzen hasi ziren. Suspertze horretan ere eragina izan zuten ikerketaz gain jarritako helburuek, hauek ikastaroei garrantzia ematea eta bidaiatzea ziren. Nahiz eta atzerrira eginiko lehen irteera 1974ean Holandara egin zen bidaia izan, dantza taldearen bidaien etapa berderatzi urte beranduago hasi zen, eta 1983tik aurrera ia urteoro egin zuten bidai esanguratsuren bat.

Ordura arte egindako lanaren ordaina 1995ean etorri



Xuletinoa dantzatzen Torrellas de Llobregaten. HITZA

zen, tradizioen zainketan izandako arrakasta zela eta Unesco-ren saria jaso zutenean Italian.

Beren berrogeita hamargarren urteurren honetan taldea gogoz beterik dator eta urtean zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte, batzuk iada pasatakoak, beste batzuk oraindik ez. Urteurrenaren ospakizun hauek helburu bikoitza dute, alde batetik beren taldearen urrezko etzeiak ospatzeko asmoa dute, eta bestetik taldea berritzeko.

Aritz Iglesias taldeko Dantzariak dioenez, gaur egun taldean hogeitaz inguru daude eta taldearen funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko beharrezkoa litzateke taldera jende gehiago sartzea.

Berak azaldu duenez haurren taldean ehun eta berrogeita hamar dantzari daude, baina halere zailtasunak dituzte erreleboa lortzeko garaian, «adin tarte batean hutsune handia dago».

Aritzek hamalau hamabost urtetik gorako neska-mutilak

ARITZ IGLESIAS
DANTZARIA

«Gure helburuetako bat dantzari berriak lortzea da helduen talderako, orain jende faltan gaude eta»

UNESCOREN SARIA

«Taldea honek tradizioen zainketan egindako lana dela-eta UNESCOren saria jaso zuen 1995ean»

animatu nahi ditu dantza taldean parte hartzera, eta horretarako honako deialdia ere luzatu du: «norbaitek dantzan hasi nahi badu, lokal berriko entsaioetara —Sakramentinoen alboan— azal dadila, astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko zortzi eta erdie-tan, ziur oso harrera ona izango duela».

Aurtengoa dantza taldeak irteera egin du Gualbara (Katalunia), bertan herriko jailetan dantzatu ondoren bidaia luza-tu eta Port Aventura eta Lloret de Mar inguruan ibili dira; «dantza egiteaz gain ongi pasatzen ere saiatzen gara» azaldu du Jon Vazquez taldeko dantzariak. Elduain eta Basaurira ere egin dituzte irteerak. Azaldu dutenez hasieratik harreman berezia izan du Bausauriko dantza taldearekin.

Urteurrena ospatzeko bertso afaria antolatu dute etzi, ostiralean, andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariekin. Sarrerak oraindik eskuragarri daude Garikano, Kimetz eta Zumbeltz dendetan hogeitaz euroren truke. Gainera, urteurrenko ospakizunen barnean Benito Lertxundiaren emanaldia ere antolatu dute Tolosako Lejodorren, urriaren 20an. Sarrerak laster izango dira salgai.

Babarrun festan ere kanpoko bi dantza talde ekarriko dituzte Katalunia eta Valladolidetik. Gualbatik etorriko da Kataluniako taldea, abuztuaren eginiko bixita itzultzera. Bestea, Corrolda de bailes y costumbres, maila altuko taldea da, eta berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko etorriko da bereziki.

Bestalde, urterto bezala Abesbatzen Lehiaketan erakustaldia eskainiko dute, Beotibar pilotalekuan azaroko lehen astean. Lehen aipatutako ez gain, aurten beste hainbat ekitaldi egiteko asmoa azaldu dute taldeko kideek, baina «oraindik ez daude zehaztuak». Aurrerago emango dute beste ekintzen berri.

GIZARTEA ▶

Mundua zeharkatuz, etxetik

Hilabetean behin, herrialde ezberdinetako emakumeak biltzen dira
Ereite elkartean, kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ematen dietelarik

ESTI EZEIZA

Zenbakiak eta matematikak adierazten dutenaren arabera, hamarretik zortzi berdinak badira, eta beste biak ezberdinak, gehiengoa zortzikoak du. Hala, bizi garen sistema honetan, gehiengoa gutxiengo diren horien gainetik jartzen da, eta bere legeak beste horien gainetik ezartzen ditu. Baina kasu batzuetan gauzak ez dira horrela, batzuetan, denak maila berean kokatzen dira, nahiz eta elkarren artean desberdinak izan. Horren adibide da Ereite elkarte. Hemen, hilabetean behin, azken ostiralean hain zuzen, herrialde eta kultura ezberdinetako emakumeak elkartzen dira, ongi pasa eta aldi berean, dituzten beharretako batzuk asetzeko.

Lehen aipatu bezala hona jokatzen dena segituan oharretuko di topaketa hauetan berdin diola, zenbat, zein kolorekoak, adinekoak, arrazakoak edo kulturakoak izan. Kanpotik be-



Uztailaren azken ostiralean, 30 emakume inguru bildu ziren Ereiten egindago topaketan. HITZA

giratuta denak desberdinak direla dirudite, baina bat egiten dute gauza askotan. Esaterako, beste emakumeekin beraien arazoez hitz egiteko duten beharrea.

Joan den urtean hasi ziren egiten emakumeen topaketak Ereiten. Hilabetean behin, herrialde bateko emakume bat edo gehiago, haren inguruan mintzatzen dira, eta ondoren jaki bereziak prestatzen dituzte. Modu atseginean, goxoan eta gertukoan, beste estatu eta kulturen berri zabaltzen dute. Dagoeneko 14 herrialdetako emakumeak izan dira hauen berri ematen, eta 150 baino gehiago hartu dute parte topaldietan.

Ana Sanz, Ereite elkarteko kidearen esanetan, «oso aberasgarriak dira elkartean egiten diren jardunaldi hauek, eta zentzu askotan izan dira ballio-garriak». Topaldietan parte hartzen duten emakumeetako asko atzerrikoak dira, eta jardunaldi hauek, jendea ezagutzeko nahiz ingurunera moldatzeko ongi etorri zaizkie.

Maroko, Euskal Herria, Ekua-dor, Mexiko, Errusia, Sahara eta beste hainbat herrialdetako emakumeak igaro dira Ereiteko emakumeen topaldietatik. Hala ere, antolatzaileen esanetan, oraindik ere herrialde asko geratzen zaizkigu.

Peru gehiago ezagutzeko aukera eman du, besteak beste

Uztaileko azken ostiralean egiz zuten topaldian Peru eta bertako emakumeak izan ziren protagonista.

Peruko Errepublikak Hego Ameriketako erdialdean eta mendebaldean kokatutako estatu andetarra da. Iparraldean Ekuador eta Kolonbia ditu mugakide. Hegoaldean, Txile. Ekialdean berriz, Brasil eta Bolibia. Mendebaldetik Ozeano Bareko urek lurra bustitzen dute. 25.700.000 biztanle ditu.

Hego Ameriketako herrialde honetan hizkuntza ugari hitz egiten dira, bere kultur ohitura aberatsengatik. Dena den, gehien entzuten den hizkuntza gaztelania da, %80ak hitz egiten baitu. Amazoniara joanez gero berriz, 35 hizkuntza ezberdin entzun daitezke. Quechua, %16ak hitz egiten duen hizkuntza, Inken inperioaren ondarea da, eta gaur egun Peruko zonalde ezberdinetan hitz egiten da, bereziki, Andean.

Gainontzeko estatueta bezala, orohar, emakumearen egoerak hobera egin du azken urteetan. Batez ere, ondorengo zentzuetan: hauen aurkako erasoetan, bereizkeriaren gu-

txitzean, landa eremuetako emakumeen egoeran. Baita gizartean duten lekuan eta aukeretan.

Landa eremuetako neskatuen artean hezkuntza bultzatzeko lege bat ere egin dute, eta hau ere baliagarri izan da emakumeentzat. Bestalde, 1996an, ministeritza bat sortu zen, emakumeen sustapenerako eta giza garapenerako. Egun, orokorrean, hezkuntza mailan, mutil eta nesken artean ez dago diferentziarik.

1999an egindako inkesta baten arabera, emakumezkoen %37,5ak indarkeria erasoak jasaten zituen. Hala, 2001ean programa bat jarri zuten martxan Gobernuak, eraso hauek ekidin eta pairatzen zituztenak zaintzeko.

Bestalde, iragan abuztuaren albiste izan Peru, eta ez, hain justu berri on batengatik; izan ere, azken hamarkadetan izan den lurrikara handienaren ondorioz, 450 pertsona inguru hil ziren, eta 1.500 zauritu Perun. Ritcher eskalan 7,9 gradu neurtu zituzten, eta epizentroa Perutik 60 kilometrorra izan zuen, Ozeano Barean, hain zuzen ere. ◀



Peruko herririk batean, bertako emakumeak sukaldatzen ari diren bitartean. HITZA

AMEZKETA ▶ KULTURA

Bere bertsoetatik gertuago

Gaur, duela 243 urte jaio zen Espilla-Saletxe baserrian Fernando de Bengoetxea, gure Pernando Amezketarra bertsolari, artzain, meatzari eta mandazaina



Amezketako plazak Pernando Amezketarra izena du. Bertan, bere busto bat ere badago. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Fernando de Bengoetxea esanda ez da gehiegi argitzen; bai, ordea, Pernando Amezketarra, hori baitzen bertsolari ezagunaren benetako izena. Euskal Herrian oso ezaguna da Amezketako Pernando, bere ixtorio xebleekin eta bertsoekin. Hala ere, ez da jaia eta bertsoa bakarrik izan Pernando Amezketarren bizitzan; nahikoa miseria bizitakoa izan baitzen, gosea bera ere ezagutu zuelarik.

Bere bizitza hainbat modutan bereiz daiteke, garai desberdinak bizi baitzuten.

Bertsolariaren bizitza

1764. urtean jaio zen Amezketako Espilla-Saletxen, gaur duela 243 urte, nahiz eta bere aita adunarra izan (bere anaia-arrebak Adunan jaio ziren). 1790. urtean, berriz, Maria Josefa Sagastumerekin ezkondu zen eta 10 seme-alaba izan zituen. Gaztelaraz ez zekien, eta eskola ere ez zuen ezagutu. Amezketan dioten bezala, langile erraza omen zen, bihurrikeria-lana gehiagotan egiten zuen, beso-lana baino, baina leiala ere bazen, besteei laguntzeko prest zegoena. Artzain, meatzari eta mandazain izan zela diote.

Udazkenetan Aralarra joaten zen artaldearekin, Elordiko etxolara. Villabonan, Amasan eta Adunan ere egoten zen ne-guan.

Amezketako meatzetan, Arri-zagan ere lan egin zuen kuprea ateratzen, 15 urte inguruz. Mandazain ere izan zela badirudi, baina baliteke meatzetara garraiatu bitartean. Badira Betelura egindako bidaiak ere, bagajea eramateko.

Penando Amezketarraren alde bertsozalea da ezaguna, eta baita onena ere, oso abila baitzen, garaiko onena. Baina, errenta eskasekoa ere bai, ez baitzen xamurra bertsolarien soldata. Hala ere, ahal zuen guztietan plazetara joaten zen bertsoak botatzera, aukera zuen bakoitzean, alegia.

Bertsolari ona izan zela ezin da ukatu: omenaldi asko egin dituzte bere izenean. Lehendabizikoa, 1924an izan zen Amezketan, Larrunarriren azpian. Azkena, berriz, 1964ean egin zioten, 200 urte jaio zela ospatuz.



Plazan dago haren bustoa. N. U.

XIX. mendearen hasieran ere lehiaren sena hori bazen. Txabalategi, Zabala amezketarra eta Altamira ziren, besteak beste, plazetan aritzen zirenak. Lehenengo Bertso Txapelketa Villabonan egin zuten 1801ean, eta oihartzun handikoa izan zen. Bigarrena, berriz, 1802an, inauterietan, Tolosan.

Oso kristaua zen, sinisduna: 1817an Errosarioko Kofradia-koa egin zen familia guztiarekin batera.

Espetxeko garaia

Pernando Amezketarraren pasarte ez hain ezaguna bezain gogorra ere kontatu beharra dago. 1807an bi ardi lapurtzea leporatu zioten Ibarraldean. Ia urte erdia egin zuen Tolosako espetxean. Artzain bati bi ardi falta zitzaizkion, eta Tolosako alkatearen laguntza, artzain horrek lortu zuen ustezko lapurrarekin ematea, Pernando Amezketarrekin ematea.

Txangua delakoa ez zen ondoegi portatu momentu hartan, lapurretaren parte ere izan baitzen.

Aranak janda hil ote zen?

Aranen kondaira oso ezaguna egin da: Pernando Amezketarra aran mordoa jan eta erre-kako ura edan ondoren hil zela esan ohi da, baina ez da guztiz fidagarria. 54 urte zituen hil zenean eta baliteke bestelako zerbaite gertatu izana, heriotza arruntago bat, garaiko gaixotasun batekin, hain zuzen.

Kontuak kontu, 1823ko uztailan hil egin zen, apaizaren be-deinkapena jaso ondoren. Ondasunik ez zuen: erabat pobrea zela adierazten du horrek. Hala jartzen du bere testamentuan: «No testo». Beraz, ez zuen ezer ere utzi, ez baitzuen ezer uzteko.

Pernando Amezketarrari buruzko infomazio hau Joxe Mari Otermin amezketarrak egindako *Amezketak, bide luze bezain malkarrak* liburutik ateratakoa da.

Ez museorik, ez baserririk...

Pernando Amezketarra 1764. urtean jaio zen, gaurko egunez, urriaren 10ean, hain zuzen. Bera joan zen, eta baita bera jaio zen baserria ere. Oraindik ere bera jaio zen baserria duela gutxi arte zutik zegoen. 250 urte baino gehiago dituen etxea eraitsi egin zuten duela gutxi. Espilla-Saletxe baserria ez dute berriz zutik ikusiko.

Bertsolariaren gorabeherak dakizkiten jende asko dago, baina harritzekoa da, Euskal Herriko pertsonairik garrantzitsuenetakoaren museo, edo aretorik ez gotea oraindik. Amezketarren ondarea da, baina ez du ematen, oraindik behintzat, honengatik ezer berezirik egingo dutenik. Plazari bere izena eta bertan bere bustoa jarrita nahikoa dela dirudi. Gure Pernando bizirik balego aterako lituzke, bai, hainbat bertso.

Inork baserriaren aztarnak ikusi nahi izanez gero, Amezketan daude oraindik, herria zeharkatuta: edozein herritarrek ezagutzen du Pernando Amezketarra jaio zeneko baserria. Oraindik, 11. zenbakia dauka atean jarrita. ◀



Espilla-Saletxe 2005ean, erortzean. J. M. OTERMINEN LIBURUTIK ATERTAKOIA



Espilla-Saletxen gaur egun aurki daitekeena hau da. N. URBIZU

LEABURU-TXARAMA ▶ POLITIKA

Tentsio uneen artean burutu dute azken ohiko udal batzordea

Herriko EAE-ANVren jarraitzaileak 'Mari Cruz lapurra, herriaren hitza errespetatu' zioen pankarta zabaldu zuten



Euskal Herrian Demokrazia Zero eta alkatearen aurkako pankarta udal aretoan. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Leaburu-Txaramako Udalean, etzi ohiko udal batzordea egin zuten udal korporazioko kideek. 20:30ean hasten bazen ere, ordu erdi lehenago, herriko EAE-ANVren jarraitzaileak, udaletxe aurrean bildu ziren protesta egiteko. Eskuetan *Mari Cruz lapurra, Herriaren hitza errespetatu* jartzen zuten pankarta zeramaten; *Euskal Herrian Demokrazia Zero* jartzen zuten esku-orriak ere ikus zitezkeen.

Bilkura tirabiren artean hasi zen. Maria Kruz Agirre, Leaburu-Txaramako alkatea eta Bide Berriakeko kideak hartu zuten hitza batzordeko gai zerrenda-

ri hasiera emanaz. Joxe Kruz Goñik, EAE-ANVko kideak ere hitza hartu zuen, Leaburuko ahaideak dituen Ion Mintegia-ga, *Minde*, euskal preso politikoari ongietorria emateko.

Maria Kruz Agirrek bilkura-konpuntuak irakurri ostean, Bide Berriak Hautesle Elkarte-ko bi zinegotziren aldeko botoak jaso zituen bozketa guztietan. Ondorioz, gaiak aurrera atera ziren.

Lehen erabakia, udal batzordei dagokiena izan zen, ondorioz «hurrengo batzarra datorren urriaren 31an egitea eta datorrenegoa hiru hilabetetik behin, hilaren azken asteazketan» egitea erabaki zuten Bide Berriakeko hiru kideek.

Ondoren, «kontuen batzorde berezia» osatu zuten, baita «udal batzarren ordezkarien izena organu kolejiatuetara-ko», titular eta ordezkoiak Maria Kruz Agirre, Joxe Martin Deusto eta Asier Etxezarretaren artean banatu zituzten.

Ohiko batzordearen amaieran, EAE-ANVren jarraitzaileek hartu zuten hitza, Bide Berriakeko Maria Kruz Agirre eta Joxe Martin Deustorengana zuzendu zirelarik, «herriaren hitza eta erabakia errespetatzeko» eskatuz. Hortik aurrera, hika-mikak nagusitu ziren bi aldean artean: «lapurrak zarete une honetan», «bultzatzen egin izana», «dirainak jaso izana» eta antzeko esaldiak entzun ziren.

AMEZKETA ▶ POLITIKA

Ezker abertzalearen batzarra gaur 20:00etan

Ikasturte politikoari begira, hiru puntu eztabaidatuko dituzte balioanitzeko aretoan



Amezketako ezker abertzalea gaur elkartuko da batzarrean. HITZA

A. IMAZ

Amezketako ezker abertzaleak herri-batzarra egiteko asmoa dauka, gaur 20:00etan balioanitzeko gelan, ikasturte politiko berriari hasiera emateko asmoz.

Hiru gai aztertuko dituztela aipatu dute Amezketako ezker abertzaleko kideek. Lehenik, «bizi dugun egoera politikoa-ren gaineko hausnarketa konpartitua egin nahi dugun». Bigarrenik, «aurrera begira ezker abertzalearen ildo politikoaren berri eman nahi da;

ditugun erroka nagusien berri emanaz» eta azkenik, «herri mailako plangintza aurkeztu eta adostea» izango dute helburu.

Balioanitzeko gelan egingo den batzarrera agertzeko deialdi zabala egin dute ezker abertzaletik, nahiz eta baldintza zehatzak ere jarri; «Euskal Herria ezkerretik eraiki nahi duenik baldin bada, Euskal Herri independentista eta sozialista baten alde lan egin nahi duenik baldin bada, azal dadila gogotsu asteazkeneko herri-batzarrera».

LIZARTZA ▶

'Somos España' kanpaina gaur aurkeztuko dute

PPren Belaunaldi Berrietako presidentek, Nacho Uriartek, *Somos España* kanpaina aurkeztuko du gaur 12:00etan Lizartzako udaletxean, Regina Otaola (PP) alboan duela.

LEABURU ▶

Gripearen aurkako txertoa bihar 10:00etan

Leaburuko M. Luisa Agirre doktora Kultur eta Osasun gunean gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera egongo da bihar 10:00etan. Bihar hartu ezin duenak Ibarren hartu ahal izango du.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berria, 13 etxebizitza 2 eta 3 logelakoak trastelekuarekin, 174.500 eurotatik.
Altoz. Salgai eraberritzeko etxea 3 etxebizitzetarako, 10.000 m²ko lursailarekin.
Altoz. 75m²ko bi solairuko borda eta 10.000 m²ko lursaila.
Anoeta. Harritziko baserrian 90m²ko etxebizitza. Berritzeko.
Betelu. Hiru logelako etxebizitza.

Egongela, sukalde, bi bainugela, terraza eta altzariek. Egoera ezin hobean.
Ibarra. Etxebizitza salgai, 3 logela, sukaldia, berogailua eta igogailuarekin.
Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. 258.435 euro.
Irrua. Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.
Tolosa. Belaten, garaje itxiak

salgai, 25 metro karratutatik hasita.
Tolosa. Erremerentari kalean, 3. solairuan, hiru gelakoa.
Eraberritua.
Tolosa. Aldaba auzoan, 3 solairuko etxe atxikia, garaje eta lursailarekin. 297.000 euro.
Tolosa. Erremerentari kalean, 62 m²ko etxebizitza 5. solairuan, 3 logelakoa. Garajea aukeratzeko.
Tolosa. Berazubín, eraberrituriko

etxebizitza, kanpoaldera ikuspegi ederrak.
Tolosa. Bialaren ondoan 50 m²ko eraberritutako etxebizitza Garaje zabalarekin.
Tolosa. Zumalakarregi kalean, etxebizitzak 1. eta 4. solairuan.
Tolosa. Larramendin, pisu altua, igogailuarekin, egoera bikainean, garajea eta trastelekuarekin.
Tolosaldea. Baserria 10.000 m²ko lursailarekin, eraberritzeko.

VILLABONA ▶ HIRIGINTZA



Zenbait oinezko, atzo, Kale Nagusian ibiltzen. I. GARCIA

Kale Nagusiko ordutegiak zehaztuta

Zamalanetarako eta bizilagunak kalera sartzeko orduen berri eman du Udalak

ERREDAKZIOA

Kale Nagusia urbanizatzeko obrak amaitu eta gero, Villabonako Udalak bando bidez zamalanetarako ordutegia eta bizilagunak kalera sartzeko ordutegiak arautu ditu. Udalaren esanetan, egin diren obrak Kale Nagusia eta haren ingurua oinezkoentzako jartzeko helburuarekin egin direlarik, «bertatik ibilgailuak ibiltzea ahalik eta gehien mugatzea komenigarri jotzen da, bereziki oinezko gehien dagoen orduetan».

Horiek horrela, zamalanetarako ordutegia goizetara mugatuko da. Jai egunak ez diren astelehen, asteazken, ostegun eta ostiralean, 08:00etatik 13:00etara. Asteartetan eta asteartea jai eguna izanik astero azoka astelehenetan ospatzen diren egunetan, 06:15ean irekiko da kalea, eta 09:00etan itxiko da. Azoka egunetan be-

rriro ere 12:45ean irekiko da. Beti ere, kalerako sarbidea La Salvadora paper-fabrika zegoen inguruko eraikinen ondotik egin beharko dela ulertzen da, hau da, kalearen hego aldetik.

Zamalanetarako ordutegia oso mugatua denez, kalea itxita dagoen ordutegitik kanpo bizilagunek beren etxetara sartzeko benetako beharra dutenean, udaltzaingora jo ahal izango dute kalea ireki diezaien eskatzeko. Udalak kasu hauek zehaztu ditu: asteroko erosketa edo butanoa etxera eramanean, adineko edo ezindutako pertsonen joan-etorriak, fardel handiak, etxe-aldaketak... Era berean, kalera sartu behar duten merkatariei, edo karga-bolumenagatik horrela eskatzen duten garraiolariei, kalea itxita dagoenean sartzen utzi ahal izango zaie, beti ere udaltzaingoaren ordutegiarren barne, hau da, egunero 06:00etatik 22:00ak bitartean.

POLITIKA ▶

Atxiloketen aurrean mobilizatzeko deia egin du Anoetako ezker abertzaleak

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak, Mahai Nazionaleko kideen atxiloketa salatzeaz gain, ezker abertzalea «ahultzea eta independentziari ateak itxeko helburuarekin PSOEkin mar txan jarri duen estrategia errepresiboa gogor salatzeko» duela azaldu du. «Bakeaz eta demokrazia hartzetan ari diren bitartean ideia politiko batzuk defenditzeagatik, independentziarena alegia», ezker abertzaleko beste 17 kide atxi-

lotuak izan direla salatzen dute.

Anoetako ezker abertzaleak «eraso berri honen aurrean herritarrei mobilizatzeko deia» luzatzen diete, «errepresioaren antzutasuna eta gure helburuetatik ez gaituztela urrunduko argi erakutsiz, independentziari ateak irekitzeko». Horrela, biharko antolatutuzten ekimenetan parte hartzeko deia egiten dute: 11:00etatik aurrera geldialdiak irakaskuntzan; 12:00etatik 13:00etara lanuzteak taber-

na eta dendetan; eta 12:00etan eta 19:30ean elkarretaratzeak Anoetako plazan. Tolosan, LABek deituta elkarretaratzea egingo dute 12:00etan udal-etxe aurrean, eta Gazte Mugimenduak deituta 12:30ean manifestazioa abiatuko da Triangulo plazatik.

Bestalde, etzi, Iruñean, *Euskal Herriak independentzia!* lelopean 17:00etan egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Anoetan. Itzuli tabernan eman daiteke izena bihar gauera arte.

LARRAUL ▶ AISIA

Haur eta gazteen aisialdirako begirale ikastaroa antolatu du Hezkide Eskolak

ERREDAKZIOA

Hezkide Eskolak, urtero legez, 2007/08 ikasturterako haur eta gazteen aisialdirako begirale ikastaroa antolatu du Larraularen duen baserrian. Ikastaroa 200 ordukoa da eta urritik maiatzera bitartean emango dute 17 asteburutan.

Ludoteka, gazteleku, astialdi talde, udalekuean... lan egiten duten edo lan egin nahi duten gazteei zuzendurik dago ikastaroa. Hau da, aisialdiaren heziketa lan esparruan lan egin nahi duenei edo motibazioa duen orori zuzenduta.

Ikastaroan lantzen diren edukiak anitzak dira: aisialdi-

hehitzaileren psikologia, pedagogia eta soziologia; aisialdi hehitzaileren parte hartze eta ekintza hehitzailera; material teknikoak; ingurugiro heziketa, jolasak, espresioa, sexualitatea, hezkidetzak... Matrikula egiteko Hezkide Eskolara deitu daiteke 943 31 14 74 telefono zenbakira.

EUSKARA ▶

Euskara ikasteko aukera Villabona, Zizurkil eta Iruran

Ikasturtea hasita badago ere, oraindik euskara eskolatan izena eman daiteke. Zizurkil eta Villabonan 10:00etatik 12:00etara da taldea eta Iruran 15:00etatik 17:00etara. Talde hauetan oraindik badago tokia. Udaletan eman behar da izena.

AIZTONDO ▶

Mendi ibilaldiak bailara ezagutzeko

Aiztondo bailarako herritarrek antolatuta, hilean behin, mendi irteera egingo dute bailarako bazterrek ezagutzeko asmoz. Lehenengo ibilaldia Larraulgo lurretik barrera izango da, hilaren 28an. Argibide gehiago, 943 693930 zenbakian.

AMASA ▶

'Klima aldaketa eta etxebizitza' hitzaldia, gaur

Amasako Kultur Etxean hainbat ekitaldi antolatu dituzte hil honetan zehar. Horietako bat gaur bertan egingo dute. Bioeraikuntzan aditua den Josu Jauregik emango du hitzaldia, 19:00etan. *Klima aldaketa eta etxebizitza* da so-lasaldia izenburua.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Miguel Mari Argote Otaegi
(Ana Jesus Argote Albizu zinegotziaren aita)

Dolominak Belauntzako Udalerria aldetik

Hileta elizkizuna izango da gaur, ASTEAZKENA, 18:30ean, Belauntzako San Juan elizan.

BELAUNTZA, 2007ko urriaren 10a

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Benito Izagirre kultur etxean 17:30ean, Lur Korta ipuin kontalariaren saioa 4-8 urteko haurrei zuzenduta.

Tolosa. Gidatze eraginkorri buruzko ikastaroa Kultur Etxean 17:00etan, Ingurugiro departamentuak antolatuta.

Tolosa. Amaia Arberas sopranoak kontzertua eskainiko du Eduardo Mokoroa udal musika eskolan 19:30ean. Sarrera doan.

Tolosa. Euskal Herriko kalitatezko jateko produktuen erakusketa Kultur Etxean 16:00etatik 20:30era.

Tolosa. Biltoki jubilatutako elkartek artea antolatuta du urriaren 18an Arantzazura. Izen-ematea, elkartean 23 eurotan.

Villabona-Aiztondo. Zaragozako Pilar basilika ikustera irteera antolatuta du urriaren 12rako. Izen-ematea, 630 855500.

Zizurkil. Teodoro Hernandezena 6. Ipuin Lehiaketa antolatuta du Zizurkilgo Udalak Aiztondo bailarako adin guztiakoko herritarrentzat. Azaroaren 30a da lanak entregatzeko epea, udalbekeetan.



1.700 gramo pisatzen duen astaputz erraldoia hartu dute

TOLOSA ▶ Ez da ohikoa gugandik gertu 1.700 gramo pisatzen duen astaputza topatzea baina ezinezkoa ez antza. 30 zentimetroko diametroa duen horrelako bat topatu baitzuen, pasa den asteburuan, Jose Angel Lizarralde tolosarrak Urkizu inguruan. Astaputz erral- doi—lagermannia gigantea— izen zientifikoaz ezagutzen den espeziearen berezitasun nagusia tamainua izan ohi da. Hain zuzen, behin tamainu handienera iritsita, jangarriak direla diote adituek. Ausartuko al dira lizarraldetarrak astaputz tortilla egiten? ..

ERAKUSKETAK

Tolosa. Calcuta Ondoan elkartek antolatutako erakusketa Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara (asteburetan itxita).

Tolosa. Emakume ikustezina erakusketa Gurea aretoan, Senegalgo emakumaren paperari buruz.

Alegia. Paisaiak lantzen dituen Rufino de Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar daude.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Bronte. C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

Larunbatean, urriak 13, arratsaldeko 17:00etan Tolosako Leidor Aretoan Golden Apple Quartet eta Kanpingags taldeek **KARABAS** antzezlan eskainiko dute. HITZAK harpidedun ordaintzaileen artean **2 sarrera pare zozketatuko ditu. Zorte on eta adi egon!!!**

Parte hartzeko, deitu osteguna 13:00a bitarte: 943 65 56 95

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

